

GIL 56 Itxinako karsta



Atxulaurreko Begia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 04' 20,93'' N

Long.: 2° 49' 07,31'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 514.757,96 m

Y: 4.768.881,38 m



Nola iritsi

Areatzan, frontoiaren ezkerraldeetik, pista asfaltatu bat hartu behar da. Segi gorantz Pagomakurreko aparkalekuraino, eta, handik, mendigunea inguratu, mendebalderantz, Atxulaurreko Begia ikusi arte, karstean sartzeko. Orozkotik ere hel daiteke, BI-3513 errepideari jarraituz Ibarra auzoraino. Han, BI-4514 errepidea hartu, eta Urigoiti auzoraino joan; pista asfaltatu baten atzean, izen bereko aparkalekua dago. Han, Atxulaurreko Begirantz doan pista bati jarraitu oinez.



Itxinako karstaren itxura; itsasoaren maila baino 1.000 m gorago dago.



Itxinako lapiazek disoluzio-morfologia oso ikusgarriak dituzte.

GILaren deskribapen laburra

Itxina mendigunea Kretazeoko (Aptiar-Albiarreko) kareharri urgondar ilun eta partez bir-kristalizatuen falka txiki batean eratua dago. Sakonera txikiko itsas plataforma baten ingurunean metatu ziren, giro subtropikal batean, non organismo asko ugaltu baitziren, hala nola moluskuak eta koralak.

Mendigune hau kareharri mitritikoen mendigune baten gainean, ingurune heze batean, garatutako karstifikazio-prozesuek egiten dute ikusgarri. Gainazaleko higadura-forma ugariak labirinto-itxurako modelaketa exokarstiko bat sortu dute. Atxulurreko Begia ize-nekoan du sarbidea (antzinako galeria-bide higatu bat da). Ugariak dira lapiaz sakonak (*rillenkarran*) eta hodi-formakoak (*hohlkarren*), eta badira zenbait lapiaz gailur-formako sedimentuz estaliak eta kareharri-hondar ildoz bereziak ere. Tamaina askotako dolinak ere nabarmentzen dira, kono alderantzikatuaren formagatik.


Itxina mendigunean, halaber, endokarstak garapen handia du: leize sakonak eratu dira, hala nola Itulegor (163 metro), eta zenbait barrunbe ezagun, hala nola Supelegor.

Behatzeko punturik onena

In situ, Itxina zeharkatzen duen bidexkan zehar.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** bat ere ez.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 16, GIL 58, GIL 59, GIL 60, GIL 61, GIL 62, GIL 63, GIL 64, GIL 65, GIL 66, GIL 67, GIL 68.



Itxina mendigunearen eskema geologikoa.



Supelegor haitzuloa.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	elementu geomorfologikoen garapenagatik eta kantitateagatik nabarmentzen da. Interes estratigrafiko nabarmena du, gainera, plataforma urgondarraren ertz gisa, baina, kasu honetan, karst-modelaketa baloratuko da; izan ere, badira formazio horren adierazgarri diren beste GIL batzuk.				

Bibliografia espezifiko

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/87-l.pdf>
- http://www.mendiak.net/Itxina_Vuelta_2009.html
- Gutierrez Elorza, M. (2008): Geomorfología. Arg.: Miguel Martín Romo. 898 or.
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): *Puntos de interés geológico de Gipuzkoa*. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. 270 or.
- Gomez Pérez, I. (1994): *El modelo plataforma carbonatada – Cuenca de Gorbea (Aptiense Superior – Albiense, Bizkaia)*. EHUko doktore-tesia. 443 or.
- Fernández Mendiola, P.A. (1987): *El Complejo Urgoniano en el sector oriental del anticlinorio de Bilbao*. Kobie XVI. 184 or.